Constituye el objeto social la producción y transmisión de imágenes y sonidos simultáneamente a través de ondas o mediante cables destinados, mediata o inmediatamente al público en general, con fines informativos, culturales, artísticos, recreativos, comerciales, publicitarios, así como cuantas actividades sean anejas o complementarias de las anteriores a través de sus sociedades de televisión, radio e Internet.

EITB se configura como la Unidad que, bajo la dependencia directa de la Dirección General, es la encargada de impulsar y coordinar la estrategia del Grupo con la sociedad y de desarrollar la difusión internacional de los canales de televisión del Grupo. Asimismo engloba un conjunto de procesos que dan servicio y apoyo a las sociedades del Grupo: EUSKAL TELEBISTA, EUSKO IRRATIA, RADIO VITORIA Y EITBNET.

El equipo de Gerencia y Coordinación Estratégica engloba las áreas responsables de los procesos del Grupo relacionados con la política comercial, la presupuestaria, los sistemas de información, recursos humanos, compras, servicios generales, calidad, investigación, comunicación y autopromoción.

El fondo social se distribuye de la forma siguiente:

PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN	%
EAEko Administrazioa Administración de la CAV	100
GUZTIRA TOTAL	100

2. 2015. URTEAN EGINDAKOAK

2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2015

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. ERRENTAGARRITASUN SOZIALARI BURUZKO HELBURUAREN ETA KUDEAKETAKO ERAGINKORTASUNARI BURUZKO HELBURUAREN ARTEKO OREKA</p> <p>2015eko ekitaldian, EITBk zorrozki kontrolatu du aurrekontua, sarreren eta gastuen aurrekontu-orekari buruzko helburua betetzeko, bereziki kontu bateratuetan.</p> <p>Azken ekitaldietan, EITB Taldearen guztizko gastuen aurrekontu metatua 172,5 milioi eurotik (2009) 124,6 milioi eurora (2015) igaro da.</p> <p>Eragin handieneko aurrekontuaren doikuntzez gain, berezko sarrerek ere behera egin zuten, krisi ekonomikoak eragin gogorra izan baitzuen publizitate-inbertsioaren merkatuan, 2013ko ekitaldian maximo historikotik % 50 baino gehiago jaitsi baitzen.</p> <p>Ondorioz, aurrekontu-oreka erdiesteko, legegintzaldi honetako lehen bi ekitaldietan gastuaren doikuntza nabarmenak egin ziren, bereziki programen edukian eta beste funtzionamendu-gastu batzuetan.</p> <p>Halaber, soldatak atxikitzeko eta plantilla zorrozki kontrolatzeko politika bat garatu zen, bereziki behin-behinekotasunari dagokionez.</p> <p>Finantzaketa mistoaren ikuspegitik, EITB Taldearen berezko sarrerek goranzko joerari ekin diote 2014tik aurrera. Publizitatea saltzeagatik sarreren banaketa oso modu desberdinean banatzen da; izan ere, publizitate-inbertsioaren % 87 Mediasetek eta Atresmediak biltzen dute, eta gainerako % 13a baino ez da autonomia-telebisten artean (% 6,5) eta gainerako kanal tematikoen eta ordainpeko kanalen artean (% 7) banatzen.</p> <p>Legegintzaldi honetan gauzatutako jarduketak gero eta enpresa eraginkorragoa lortzeko neurriak hartzean oinarritu dira, produktibitatea hobetuz, programa-edukiei eragiten dieten zuzeneko gastuei ahalik eta inpaktu txikiagoarekin eraginez. Ikuspuntu hori EITB Taldearen iraunkortasunerako funtsezko eta oinarrizko printzipiotzat jo da.</p> <p>2015ean kostu-partida guztiak berrikusteko politikarekin jarraitu da, gastua sarreretara egokitzeko asmoz.</p> <p>Doikuntzak edukien arloari ere eragin diote.</p>		<p>1. EQUILIBRIO ENTRE EL OBJETIVO DE RENTABILIDAD SOCIAL Y EL DE EFICIENCIA EN LA GESTIÓN</p> <p>EITB ha desarrollado durante el ejercicio 2015 un riguroso control del presupuesto para cumplir con el objetivo del equilibrio presupuestario de ingresos y gastos, particularmente en las cuentas consolidadas.</p> <p>En los últimos ejercicios el presupuesto acumulado de gastos totales del Grupo EITB ha pasado de 172,5 millones de euros (2009) a 124,6 millones de euros (2015).</p> <p>A los ajustes presupuestarios de mayor impacto, de 2012 y 2013, se sumaron también las caídas de ingresos propios ya que la crisis económica afectó con virulencia también al mercado de la inversión publicitaria alcanzando una caída superior al 50% sobre el máximo histórico en el citado ejercicio 2013.</p> <p>En consecuencia, para lograr el equilibrio presupuestario se realizaron en los dos primeros ejercicios de la presente legislatura importantes ajustes del gasto, particularmente en contenidos de programas y otros gastos de funcionamiento.</p> <p>Asimismo, se desarrolló una política de contención de salarios y control riguroso de la plantilla, particularmente en la eventualidad.</p> <p>Desde la perspectiva de una financiación mixta los ingresos propios del Grupo EITB han iniciado una tendencia al alza a partir de 2014. La distribución de los ingresos por venta de publicidad se distribuye de forma muy desigual ya que el 87% de la inversión publicitaria lo acaparan Mediaset y Atresmedia y sólo el 13% restante se reparte entre televisiones autonómicas (6,5%) y resto de canales temáticos y de pago (7%).</p> <p>Las actuaciones adoptadas en la presente legislatura se han plasmado en tomar medidas para lograr una empresa cada día más eficiente, mejorando la productividad, tratando de afectar con el menor impacto posible a los gastos directos que afectan a contenidos de programas. Tal enfoque se ha considerado como principio fundamental y básico para la sostenibilidad del Grupo EITB.</p> <p>A lo largo de 2015 se ha continuado con la política de revisiones de todas las partidas de costes a fin de ajustar el gasto a los ingresos.</p> <p>Los ajustes también han afectado al área de contenidos.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> Edukien arloan, EITB Taldea 77,6 milioi euroko gastu-gaitasuna izatetik (2009) 41,1 milioi eurokoa izatera (2014) pasatu da, eta 2015eko ekitaldia antzera bukatuko dela aurreikusten da. <p>Edukien eraginak batez ere telebista ukitzen du, komunikazioaren merkatuko bide lehiakorrena baita. Lehiakide nagusiek egunero eskaintzen dituzten programen aurrekontua 7-10 aldiz handiagoa dela zenbatesten da.</p> <p>Murrizketa horrek irratiko edukiei ere eragiten die, bereziki kolaboratzaileak kontratatzeke gaitasunari eta ordezkapenen kontrol murriztaile nabarmenari.</p> <ul style="list-style-type: none"> Interneteko eremuan, edukiak prestatzeko zerbitzuen enpresa hornitzailearen likidazio-fasearen ostean, horniduren kontabilitate-partidako edukien azpikontratazioan zegoen gastua pertsonalgastuen kontabilitate-partidara mugitu da. <p>Plantillaren tamaina zein eratorritako kostua une oro atxikitzeko neurriak aplikatu dira. Hala ere, batez besteko pertsonen kopuruaren eta loturiko kostuaren ikuspegitik, pertsona-gastua hasiera batean aurrekontuan jasotakoari dagokionez igotzea eragin duten zenbait gertakari garrantzitsu egon dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> Irratietatik, enplegu-deialdi publikoa gauzatzeko atzerapenak (hasiera batean zenbatetsitakoaren aldean) batez besteko plantilla zenbatetsiari eragin dio, bai eta horren ondoriozko kostuei ere. Bestalde, 2015eko lehen 9 hilabeteetan 39 plaza estali dira, eta horrek kostu gehigarria ekarri du, kalte-ordainengatik. Txosten hau bukatzerakoan, 10 plaza geratzen dira oraindik estaltzeke (dauden 49etatik), 2016ko ekitaldian burutuko den enplegu-deialdi publikoaren 3. fasearen zain. Azkenik, 24 kontraturen iraungipenak (hasiera batean ezarritako 30ak baino 6 gutxiago), dagozkien kalte-ordainak eta azken hilabeteetako pixkanakako burutzeak izan duten eragina azpimarratu behar da. Eitbnetetik, 2015eko urtarrilaren eta maiatzaren artean, 29 pertsona sartu ziren plantillan (likidazio-prozesuan dagoen Media for future partaidetzako sozietatetik etorriak), epaien bidez, langile mugagabe ez finko gisa. Horren ondorioz, pertsonalgastua handitu egin da hasiera batean aurrekontuan jasotakoarekin erkatuta, eta, era berean, azpikontratazio-gastuak murriztu egin dira. Azkenik, EITBNeten hitzarmena sinatzeak soldatak taldeko gainerako sozietateetako profilekin parekatzea ekarri du. 		<ul style="list-style-type: none"> En el área de contenidos el Grupo EITB ha pasado de una capacidad de gasto de 77,6 millones de euros (2009) a 41,1 millones de euros (2014) y una previsión de cierre similar para el ejercicio 2015. <p>La afección de los contenidos afecta singularmente a la televisión, el medio más competitivo del mercado de la comunicación. Los principales competidores ofrecen diariamente programas cuyo presupuesto se estima entre 7 y 10 veces superior.</p> <p>Tal reducción afecta también a los contenidos de radio, particularmente a la capacidad de contratación de colaboradores y a un importante control restrictivo en sustituciones.</p> <ul style="list-style-type: none"> En el ámbito de Internet, tras la fase de liquidación de la empresa proveedora de servicios de elaboración de contenidos se ha trasladado el gasto existente en la subcontratación de contenidos de la partida contable de aprovisionamientos hacia la partida contable de gastos de personal. <p>Se han aplicado las medidas para la contención de la dimensión de plantilla así como del coste derivado en todo momento. Aun así, desde la perspectiva del número de personas medias y coste asociado existen varios hechos destacables que han supuesto un aumento del gasto de personal respecto a lo inicialmente presupuestado:</p> <ul style="list-style-type: none"> Desde las Radios, el retraso en la ejecución de la convocatoria pública de empleo (respecto a lo estimado inicialmente) ha afectado a la plantilla media estimada, así como a los costes derivados de la misma. Por otro lado se encuentra la cobertura de 39 plazas a lo largo de los 9 primeros meses del 2015, hecho que ha supuesto un coste añadido por indemnizaciones. Al momento de cierre de la presente memoria aún quedan 10 plazas por cubrir (sobre las 49 existentes), pendientes de la 3ª fase de la CPE que se ejecutará durante el ejercicio 2016. Por último, resaltar el efecto de la extinción de 24 contratos (6 menos que los 30 estipulados inicialmente), sus correspondientes indemnizaciones y su ejecución a lo largo de los últimos meses, de forma paulatina. Desde Eitbnet, entre enero y mayo de 2015, se incorporaron 29 personas en la plantilla (procedentes de la sociedad participada Media for future en proceso de liquidación), por la vía de sentencias judiciales, en condición de trabajadores indefinidos no fijos. Este hecho ha supuesto un aumento del gasto de personal respecto a lo presupuestado inicialmente, y a su vez una reducción de los gastos de subcontratación. Por último, la firma del convenio de EITBNet ha supuesto la equiparación salarial con perfiles del resto de sociedades del grupo.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> • Nabarmendu beharreko azken egitatea da 2014rako plantilla-helburuak ez zituela kontuan hartu lan-ikuskaritzaren aginduaren ondoriozko sarrerak; agindu horren bitartez, ETBko aurkezleen zein irratiko musika-animatzaileen lan-harremana eraldatu da (artisten araubideko lan-kontratuak ziren eta araubide arrunteko kontratu bihurtu dira). <p>1. Soldata-masa (GS gabe), Taldearen datu metatua (milaka eurotan) 2015eko ekitaldirako. Abuztuan bateratutako datuez egindako zenbatespena.</p> <p>2. EITB Taldeko plantilla. 2015eko benetako zenbatespena.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Publizitate-merkatuko atzeraldiak negozio-zifran eragina izan du. EITBk 2015ean azken urteetan baino sarrera-zifra baxuagoa edukiko du publizitateagatik; hala ere, aurreko ekitaldikoa baino altuagoa izango da. • Espainiako estatuan publizitate-merkatuak beheranzko etengabeko joera izan du 2007tik 2013ra, 2010ean izan ezik, jarraikortasunik eduki ez baitzuen. 2014an joera-aldaketa hasi da, lehen seihilekoan % 2,7ko hazkundea sortu delako aurreko ekitaldiko aldi beraren gainean; aldaketa 2015eko lehen seihilekoko urte arteko gehikuntzari esker sendotu da, % 7tik hurbil dagoela zenbatesten da-eta. • Telebistako bilakaera 2015eko urtarriletik uztaile arte, 2014ko ekitaldiarekin erkatuta, positiboa izan da Mediaseten (% +5,4) eta Atresmedian (% +8,8). Horiek biek, gainerako doako telebista nazionalekin batera, % +7,1eko igoera biltzen dute (Infoadexen datuen arabera). Autonomia-telebistetan, hazkundea batez beste antzekoa izan da (% +6,9). 2015eko ekitaldi osoan EITB Taldearentzat zenbatetsitako publizitate-sarreraren batez besteko hazkundea, aurreko ekitaldiarekin erkatuta, % 7,9koa da, oso portaera positiboa alegia. • Publizitate-inbertsioaren bilakaera nazionala irratian 2014ko ekitaldian baino % 10 gehiago handitu da. EITBren irratien kasuan, guztira, zifra hori % 6,3 handiagoa da. • Publizitate-sarrera bateratuei dagokienez, txosten hau bukatzerakoan eta bukaerako zenbatespenean oinarrituta, gutxi gorabehera aurrekontuan jasotakoa baino % 11,7 gehiago aurreikusten da. <p>1. EITB Taldearen negozio-zifra bateratua, 2015. urterako zenbatetsia.</p>	<p>44.528</p> <p>1.000</p> <p>16.693</p>	<ul style="list-style-type: none"> • El último hecho a destacar es que el objetivo de plantilla para 2014 no tenía en cuenta las incorporaciones motivadas por la orden de la Inspección de Trabajo por medio de la cual se ha procedido a transformar la relación laboral existente tanto de los presentadores de ETB como los animadores musicales de la Radio (pasando de contratos laborales de régimen de artistas a contratos del régimen ordinario). <p>1. Masa salarial (sin SS), dato acumulado del Grupo (miles de euros) para el ejercicio 2015. Estimación con datos consolidados a agosto.</p> <p>2. Plantilla del Grupo EITB. Estimación real 2015.</p> <ul style="list-style-type: none"> • En la cifra de negocio ha incidido la recesión del mercado de la publicidad. EITB tendrá en 2015 una cifra de ingresos de publicidad inferior al de los últimos años, pero superior al del ejercicio anterior. • El mercado de la publicidad en el Estado español ha tenido una tendencia a la baja constante entre 2007 y 2013, con la excepción de 2010 que no tuvo consistencia. En 2014 se ha iniciado el cambio de tendencia al generar en el primer semestre un crecimiento de 2,7% sobre el mismo período del ejercicio anterior que se consolida con el incremento interanual del primer semestre de 2015 cuya estimación es próxima al 7%. • La evolución en televisión de enero a julio del 2015 respecto al ejercicio 2014, ha sido positiva en Mediaset (+5,4%) y Atresmedia (+8,8%), que junto al resto de televisiones nacionales en abierto hacen un aumento del +7,1% (según datos de Infoadex). En las televisiones autonómicas el crecimiento ha sido similar de media (+6,9%). El crecimiento medio de los ingresos de publicidad estimados para el Grupo EITB en el conjunto del ejercicio 2015 y respecto al ejercicio precedente, es del 7,9%, un comportamiento muy positivo. • La evolución de la inversión publicitaria en la radio a nivel nacional evoluciona un 10% por encima respecto al ejercicio 2014. En el caso de las radios de EITB a nivel conjunto dicha cifra es superior en un 6,3%. • A nivel de ingresos de publicidad consolidados, al momento del cierre de la presente memoria y en base a la estimación de cierre, se prevé una cifra aproximadamente un 11,7% por encima de lo presupuestado. <p>1. Cifra de negocios consolidada del Grupo EITB estimada para año 2015.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2. EITB Taldearen publizitate-salmenten zifra bateratua 2015. urterako (milaka eurotan).</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2015eko ekitaldian EITB Taldearen kontu bateratuetan lortuko den emaitza teknikoa aurrekontu-oreka eta sarreren eta gastuen oreka izango direla aurreikusi da, hein handi batean sarreren hazkundearen bilakaeraren menpe. Gehikuntza horiek pertsonal-doikuntzetatik eta kalte-ordainetatik eratorritako desbiderapenak estaltzeko aplikatuko dira. • Enpresa-kudeaketaren arloan, 2015eko ekitaldiak EITB Taldean eta haren sozietateetan ekintza hauek garatzea izan du ezaugarri: <ul style="list-style-type: none"> a) Programazio-parrillak eskaintza zabal batez egokitzea, informazio- eta gaurkotasan-edukiekin, entretenimendurekin, kultura eta dibulgazioarekin, telebista, irrati zein Internet euskarrietan, bai euskaraz bai gaztelaniaz. Egokitzapenek X. legegintzaldirako Programazio Ildo Orokorrak bete dituzte. b) 8 ildo estrategikoetan ezarritako helburuak betetzeko proiektuak garatzea. Hauek dira ildoak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Zerbitzu publikoaren eredu izatea. 2. Informazio eta egungo gaietan liderrak izatea. 3. Euskarazko audientzia indartzea. 4. Multimedia prozesuetan konbergentzia izatea. 5. Ikuspegi partekatua arauketan eta kudeaketan. 6. Ikus-entzunezko sektorearekin elkarlanean aritzea. 7. Enpresa-iraunkortasuna lortzea. 8. Teknologia kudeatzea. c) Zuzendaritza-taldeari dagokionez, azpimarratu behar da organigramari eutsi zaiola, 2013ko ekitaldian zehar buruturiko aldaketen ostean egindako zuzendaritzako langileen murrizketarekin. 	<p>13.952</p>	<p>2. Cifra de ventas de publicidad consolidada del Grupo EITB para año 2015 (miles de euros).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Está previsto lograr en el ejercicio de 2015 un resultado técnico de equilibrio presupuestario, de equilibrio de ingresos y gastos en las cuentas consolidadas del Grupo EITB, en gran medida, dependiendo de la evolución de crecimiento de ingresos. Tales incrementos se aplicarán a cubrir las desviaciones derivadas de los ajustes de personal, así como de las indemnizaciones. • En el ámbito de la gestión empresarial, el ejercicio 2015 se ha caracterizado por haber desarrollado en el Grupo EITB y sus sociedades las siguientes acciones: <ul style="list-style-type: none"> a) La adecuación de las parrillas de programación con una amplia oferta de contenidos de información y actualidad, entretenimiento, cultura y divulgación en los soportes de televisión, radio e Internet, en euskera y castellano. Las adecuaciones han cumplido las Líneas Generales de la Programación para el período de la X. Legislatura. b) El desarrollo de los distintos proyectos para el cumplimiento de los objetivos establecidos en las 8 líneas estratégicas, siendo las mismas: <ol style="list-style-type: none"> 1. El modelo de Servicio Público. 2. El liderazgo en Información y Actualidad 3. Reforzamiento de la audiencia en euskara. 4. Convergencia en los procesos multimedia. 5. Visión compartida en la regulación y gestión. 6. Colaboración con el sector audiovisual. 7. Sostenibilidad empresarial. 8. Gestión de la tecnología. c) A nivel de equipo directivo, destacar el mantenimiento del organigrama con la reducción realizada a nivel de personal directivo tras las modificaciones llevadas a cabo a lo largo del ejercicio 2013.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>d) EITBko eta haren sozietateetako kontratazio administratiboaren kudeaketari dagokionez, botere adjudikatzailetzat jotzen baitira, aurreko lizitazioetan doikuntza ekonomiko oso handiak egin ostean (% 15 2012an eta % 20 2013an), 2015eko aurrezki-aurreikuspena fase doiago batean sartu da, espediente gehienek lehenago deskontu garrantzitsuak eduki zituzten-eta. Txosten hau egitean, aurreikusitako 27 espedienteetatik 19 kudeatu direla, 467 mila euro aurreztu dira 7.403 mila euroko erosketazifra baterako; horrek esan nahi du % 8,9ko aurrezkoa lortu dela.</p> <p>e) Interneten, EITBk audientzia handitu du, 2014ko azken zatian eitb.com kontua eitb.eus bihurtzea erabaki arren. Domeinua aldatzeko erabakia hartzean, EITB, .eus Fundazioaren patronatuko kide gisa, migrazioa egin duten lehen erakundeetako bat bihurtu da eta beste instituzio batzuek ildo berari jarraitzea erraztu du. Erabiltzaileak, bisitak eta ikusitako orriak murriztu behar zirela zioten aurreiritziak ez dira izan aldagakaren aurretiko agertokiak islatzen zuten bezain negatiboak. Zenbait ekimen aringarri aktibatu ziren, bereziki bilaketa-irizpideak eta Google-tik eta gizarte-sareetatik eitb.eus webgunerako sarbideak aintzat hartuz. Hartutako neurrien ondorioz, hazkunde-bidea egonkortu egin da.</p> <p>f) EITBk ETBHD kanalari eutsi dio guneburuan beharrezko inbertsioak egiten direnean ohiko hedapenera pasatzeko. Probaldian, kable bidezko telebista eskaintzen duten hornitzaileei eskaini zaie, abonatuarentzako gainkosturik gabe oinarritzko paketean jar dezaten. Urrats horren bitartez, edukiak eskuratzeko kostu gehigarriak gehitu gabe, onura atera zaio ETBk HDn ekoizteko, gordetzeko eta emititzeko duen gaitasunari.</p> <p>g) Eusko Irratia SAko mugagabe ez finakoak hiru egoitzetan araupetzeko enplegu-deialdi publikoko A eta B faseak bukatu dira. Prozesua EITBko Administrazio Kontseiluak 2014ko apirilaren 29an hartutako erabakian oinarritu da. Bi zati desberdinu eduki ditu: 49 plazarako enplegu-deialdi publikoaren bidezko araupetzea eta 24 plazaren amortizazioa. Irteerak eta sarrerak 2015eko hirugarren hiruhilekoan garatu dira. Araupetze-zatien C fasea dago burutzeke; hasiera batean, 2016ko udarako aurreikusi zen.</p>		<p>d) En relación a la gestión de la Contratación Administrativa de EITB y sus sociedades, con consideración de poder adjudicador, tras haber realizado ajustes económicos muy importantes en las licitaciones pasadas, 15% (2012) y 20% (2013), la previsión de ahorros de 2015 entra a una fase más ajustada ya que la mayoría de los expedientes tuvieron importantes descuentos anteriormente. A fecha de elaboración de la presente Memoria, cuando se han gestionado 19 expedientes de 27 previstos, se ha logrado un ahorro de 467 miles de euros para una cifra de compra de 7.403 miles de euros, lo que representa un ahorro de 8,9%.</p> <p>e) En internet, EITB ha aumentado la audiencia pese a la decisión de trasladar la cuenta eitb.com a eitb.eus en la última parte de 2014. Al adoptar la decisión de cambio de dominio, EITB como miembro del Patronato Fundación.eus se constituye en una de las primeras organizaciones que ha efectuado la migración, favoreciendo que otras instituciones sigan el mismo paso. Los perjuicios de reducción de usuarios, visitas y páginas vistas no ha sido tan negativos como reflejaban distintos escenarios previos al cambio. Se activaron diversas iniciativas paliativas considerando particularmente los criterios de búsquedas y accesos a eitb.eus desde Google y desde las redes sociales. Fruto de las medidas adoptadas se ha estabilizado la vía de crecimiento.</p> <p>f) EITB mantiene el canal ETBHD para pasar a la difusión convencional cuando se realicen las necesarias inversiones en la cabecera. En la fase de pruebas se ha ofrecido a los proveedores que ofertan televisión por cable para su colocación en el paquete básico sin sobrecoste para el abonado. Con este paso, sin añadir costes adicionales en la adquisición de contenidos, se da utilidad a la disponibilidad de ETB para producir, almacenar y emitir en HD.</p> <p>g) Se han finalizado las fases A y B de la convocatoria pública del empleo para la regularización de los indefinidos no fijos de Eusko Irratia, S.A. en sus tres sedes. El proceso se ha sustentado en la decisión adoptada por el Consejo de Administración de EITB el 29 de abril de 2014. Ha tenido dos partes diferenciadas: la regularización mediante convocatoria pública de empleo para 49 plazas y la amortización de 24 plazas. Las salidas y las incorporaciones se han desarrollado en el tercer trimestre de 2015. Queda pendiente en la parte de regularización la fase C, inicialmente prevista para el verano de 2016.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Prozesua zenbait hilabete atzeratu da legeria aplikagarriak eskatzen dituen alderdi legal eta formal guztiak bermatzen dituen betetzea ziurtatzeko eta jurisprudenziazat jotzen diren ebazpen judizialen interpretazioa ere aintzat hartuta.</p> <p>h) EITBNETen lehen hitzarmen kolektiboa sinatu da. Orain arte, sozietateak barne-arauei eta banakako akordioei men egiten zien. Hitzarmen kolektiboa sinatzeak sozietate horren egoera araupetu du. Halaber, soldaten araupetzeari heldu dio, bai eta EITB Taldeko gainerako sozietateei aplikatzen zaizkien arauen esparruan garrantzitsuak diren beste antolaketa-alderdi batzuei ere.</p> <p>2. PROIEKTUEN GARAPENA</p> <ul style="list-style-type: none"> Egitura-kostuaren egokitzapena. Gastu orokorrak guztizko aurrekontuari dagokionez ezartzeko eta kontrolatzeko helburuarekin bat dator zehatz-mehatz. "Bestelako ustiapen-gastuak" zati gastu-aurrekontu osoa egitean, emaitza % 22,9 izan zen 2012ko ekitaldian, eta hurrengo ekitaldian 2015erako aurreikusitako % 21eraino murriztu zen. Nafarroan TDT emititzeko akordio instituzionalari buruz. 2015eko maiatzeko hauteskundeen ostean, akordioa egiteko asmoz berretsi da bi lehendakaritzen topaketa instituzionalean, 2015eko irailean. Aurreikus daiteke administrazio bakoitzeko talde teknikoek arazoizko epean irtenbide betegarria erdietsiko dutela. 2009an euskal sektore publiko osorako ezarritako gobernu korporatiboko eta gizarte-erantzukizuneko printzipioak aplikatzea. Ekimen horrek Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren bulkada eduki zuen. 2015ean, EITBk gizarte-erantzukizunari buruzko 2013ko eta 2014ko txostena argitaratu du, gobernu korporatiboarekin, gizarte-erantzukizunarekin eta gardentasunarekin zerikusia daukaten printzipio zorrotzenak betetz; izan ere, azken ardatz horrek nabarmen egin du aurrera lehen argitaratutako txostenekin erkatuta. Era berean, aurreikusi da eitb.eus webgunea 2015eko azken hiruhilekoan zehar egokituko dela, sektore publikoari eskatu ahalko zaizkion gardentasun-betekizunak lasai betetze aldera. 		<p>El proceso se ha retrasado algunos meses para poder asegurar un cumplimiento garantista de todos los aspectos legales y formales exigidos por la legislación aplicable y considerando también la interpretación de las resoluciones judiciales que tienen consideración jurisprudencial.</p> <p>h) Se ha firmado el primer convenio colectivo de EITBNET. Hasta la fecha esta sociedad se regía por normas internas y acuerdos individuales. La firma del Convenio colectivo regulariza la situación de esa Sociedad y aborda la regularización salarial y otros aspectos organizativos relevantes en el marco de las normas regulatorias que se aplican al resto de las sociedades del Grupo EITB.</p> <p>2. DESARROLLO DE PROYECTOS</p> <ul style="list-style-type: none"> Adecuación del coste estructural. Se corresponde propiamente con el objetivo del dimensionamiento y control de los gastos generales en relación al presupuesto total. El resultado de dividir los "Otros Gastos de explotación" por el Presupuesto total de gasto daba un ratio del 22,9% en el ejercicio 2012, reduciéndose en los sucesivos ejercicios hasta el 21% previsto para el presente 2015. Acerca del acuerdo institucional para la emisión de TDT en Navarra. Tras las elecciones de mayo de 2015 se ha ratificado la voluntad de acuerdo en el encuentro institucional de las dos presidencias, en septiembre de 2015. Es previsible que los equipos técnicos de las respectivas administraciones logren una solución satisfactoria en un plazo razonable. Aplicación de los principios de Gobierno Corporativo y Responsabilidad Social establecidos en 2009 para el conjunto del sector público vasco. Esta iniciativa tuvo el impulso de la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco. En 2015 EITB ha publicado la Memoria de Responsabilidad Social de 2013 y 2014, cumpliendo los principios más exigentes de Gobierno Corporativo, Responsabilidad Social y Transparencia, ya que éste último eje ha tenido un notable avance sobre las Memorias anteriormente publicadas. Asimismo, está prevista la adaptación de la web eitb.eus a lo largo del último trimestre de 2015 para cumplir holgadamente todos los requerimientos en materia de transparencia que serán exigibles al sector público.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> • 2013ri eta 2014ri dagokien gizarte-erantzukizun korporatiboari eta gobernu arduratsuari buruzko txostena EITB Taldearen bi urtean behingo laugarren txostena da, GRI,A+ Sector Media nazioarteko erreferentzia erabiltzen du eta argitaratu aurretik AENORek egiaztatu du. • Berdintasun Plana. Plana gizarte-erantzukizun korporatiboaren esparru orokorrean kokatzen da eta irismen bikoitza eduki behar du: funtsean plantillarentzako den barne-kudeaketa eta edukien kudeaketa xede duen alderdia. EITB Taldearen lehen Berdintasun Plana garatzeko aldia bukatutakoan, aurreikusita dago diagnostikoa eguneratzea, II. Berdintasun Plana adostu eta prestatzeko helburuarekin; 2015eko azken hiruhilekoan heldu behar zaio prozesuari. <p>3. EITB TALDEAREN PLANTILLAREN LAN-EGONKORTASUNA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzatik etorritako Aurrekontuen Legean ezarritako jarraibideekin bat etorritik, 2015eko aurrekonturako plantillaren soldatak bere horretan utzi dira ekitaldian. 2015eko ekitaldiari dagozkion aparteko ordainsariak urtarrilean eta uztailean ordaindu dira aurretiaz. Era berean, 2015eko apirilean 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren % 25 ordaindu da. • Atzeraldi ekonomikoaren testuinguruan, Media Four Future (M4F) enpresaren likidazioa ekarri duen lehiaketa-prozesua gertatu da; enpresa horrek webgunerako edukiak kudeatzen zituen. Hango langile batzuek lan-eskubideak eskatu zituzten lan-arloko epaitegian. Prozesua akordio batez bukatu da; bertan, onartu da EITBNetentzako 29 demanda legez kontrako langile-lagapentzat jotzen direla. Neurri horrek 29 langile berri gehitu dizkio EITBNeteko plantillari (mugagabe ez finkoak). EITB sortzeko legeak plantillan sartzeko ezartzen dituen printzipioen arabera araupetu beharko dira. • 2014ko apirilaren 29an, EITBko Administrazio Kontseiluak Eusko Irratia SAren enplegu-deialdi publikoa eta Gizarte Segurantzaren ikuskaritzak eskatuta laborizatutako enplegatuen araupetzea (2009 eta 2010) onetsi zituen. EITB sortzeko legeak ezartzen du erakunderako eta haren sozietateetarako langileria deialdi publikoaren bidez hautatuko dela, merezimendu- eta gaitasun-printzipioetan oinarrituriko sistemen arabera. • Onetsitako enplegu-deialdi publikoari esker, kontratu mugagabe ez finkoak zeuzkaten profesionalen egoera araupetu da. 		<ul style="list-style-type: none"> • La Memoria de Responsabilidad Social Corporativa y Gobierno Responsable correspondiente a 2013 y 2014 es la cuarta memoria de carácter bienal del Grupo EITB, utiliza la referencia internacional GRI,A+ Sector Media y ha sido verificada por AENOR antes de su publicación. • Plan de Igualdad. El plan, que se sitúa en el marco general de la Responsabilidad Social Corporativa, tiene un doble alcance: gestión interna dirigida fundamentalmente a la plantilla y la parte dirigida a la gestión de contenidos. Finalizado el tiempo de desarrollo del primer Plan de Igualdad del Grupo EITB está prevista una actualización del diagnóstico para proceder a consensuar y elaborar el II Plan de Igualdad, proceso que está previsto acometer en el último trimestre de 2015. <p>3. ESTABILIDAD LABORAL DE LA PLANTILLA DEL GRUPO EITB</p> <ul style="list-style-type: none"> • De acuerdo a las directrices establecidas en la Ley de Presupuestos y normativa emanada del Gobierno Vasco para el Presupuesto de 2015 se han mantenido durante el ejercicio los sueldos y salarios de la plantilla. Las pagas extraordinarias correspondientes al ejercicio de 2015 se han abonado en enero y julio de forma anticipada. Asimismo en abril de 2015 se ha abonado el 25% de la paga extra de diciembre de 2012. • En el contexto de la recesión económica, el proceso concursal que ha desembocado en la liquidación de la empresa Media Four Future (M4F) que gestionaba los contenidos para la web. Algunos de sus trabajadores demandaron derechos laborales en el Juzgado de lo Social. El proceso ha finalizado con un acuerdo que aceptaba que 29 demandas a EITBNet tienen consideración de cesión ilegal de trabajadores. Esta medida ha incrementado la plantilla de EITBNET con 29 nuevos trabajadores, indefinidos no fijos, sobre los que habrá que proceder a la regularización conforme a los principios de ingreso en plantilla que establece la ley de Creación de EITB. • Con fecha de 29 de abril de 2014 el Consejo de Administración de EITB aprobó la Convocatoria Pública de Empleo de Eusko Irratia, S.A. y la regularización de los empleados laborizados por requerimiento de la Inspección de la Seguridad Social (2009 y 2010). La ley de Creación de EITB establece que la selección de personal para el Ente y sus Sociedades se hará mediante convocatoria pública y de acuerdo con sistemas basados en los principios de mérito y capacidad. • La convocatoria pública de empleo aprobada ha permitido regularizar la situación de los profesionales con contratos indefinidos no fijos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> • Eskainitako 49 plazetatik 39 sartu dira Eusko Irratian, A eta B faseetan dagozkienak. Profesional guztiek profil elebiduna daukate, erredakzioa modu eraginkorragoan antolatzeko. 2016ko udan sartuko dira azken langileak. Ikuspegi prozesal batetik, EAEANeko lan-arloko salaren epai batek, maiatzean, EITBren aldeko epaitza eman zuen, deialdiaren oinarriek legezkotasun-eskakizun guztiak betetzen zituztela adierazi baitzuen. • 2014ko apirilaren 29ko akordioan, EITBko Administrazio Kontseiluak 30 plazaren amortizazioa ere onetsi zuen. 2015eko udan, enplegu-suntsipen kolektiboko prozesua burutu da, enplegu-erregulazioko espediente bat gauzatu, Auzitegi Gorenaren lan-arloko salaren dotrina berriaren arabera balioa duen prozedura bakarra da-eta. Negoziazio-prozesuaren ondoren, benetako amortizazio-kopurua 24 plaza izan dira. • 2015eko irailaren 15ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko lan-arloko salak lege-babesa eman dio Eusko Irratian eta Radio Vitorian egindako 24 pertsonaren kaleratze kolektiboari, sindikatu batzuek aurkeztutako demandak ezetsiz. Sindikatu horiek ohartarazi dute kasazio-errekurtsoa aurkeztuko dutela epai horren aurka. • Lan-poltsak indarrean dagoen araudi aplikagarriari eta HKEEren (Herri Kontuen Euskal Epaitegia) eskakizunei jaramon egiten die. Behin-behineko kontratazioari buruzko barne-jarraibidearekin bat etorri egiten ari da kontratazioa, azken ekitaldietan proba ofizialez normalizatu diren zerrenda barematuak erabiliz. Pentsa daiteke horren azken eguneratzea Eusko Irratiako enplegu-deialdi publikoaren garapenez egin dela. • Inbertsioak nagusiki ustiapen-ekipamendua berritzean ardaztu dira, funtsean zaharkitzeagatik ordeztuko irizpidean oinarrituta. Honako hauek izan dira inbertsio esanguratsuenak: <ul style="list-style-type: none"> • Miramongo estudioetan konmutazio-matritzea berrezartzea. • Automatizazioko, bereizmen txikiko eta MAM zerbitzarien plataforma berritzea. • Miramongo egoitzako estalkian arlo teknikoetako aire-girotzea berritzea. • Miramongo 3. kontrolko audio-nahasgailua berritzea. • Gasteizen sua itzaltzeko sistemak hobetzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • Se han incorporado a Eusko Irratia 39 de 49 plazas ofertadas, correspondientes a las fases A y B. Todos los profesionales tienen perfil bilingüe para una organización más eficiente de la Redacción. Las últimas incorporaciones se realizarán en el verano de 2016. Desde una perspectiva procesal una sentencia de la sala de lo Social del TSJPV falló, en mayo, a favor de EITB declarando que las bases de la convocatoria cumplían con todas las exigencias de legalidad. • En citado acuerdo de 29 de abril de 2014 el Consejo de Administración de EITB aprobó también la amortización de 30 plazas. En el verano de 2015 se ha culminado el proceso de extinción colectiva de empleo, mediante la ejecución de un ERE, único procedimiento válido según doctrina reciente del pleno de la sala de lo Social del Tribunal Supremo. Tras el proceso de negociación, la cifra efectiva de amortizaciones ha sido de 24 plazas. • Con fecha 15 de septiembre de 2015, la Sala de lo Social del Tribunal Superior de justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco da amparo legal al despido colectivo de 24 personas en Eusko Irratia y en Radio Vitoria, desestimando las demandas presentadas por algunos sindicatos. Contra esta sentencia, dichos sindicatos han anunciado que presentarán recurso de casación • La bolsa de trabajo atiende a la normativa vigente aplicable y a las distintas exigencias de TVCP (Tribunal Vasco de Cuentas Públicas). Se está contratando conforme a la instrucción interna sobre la contratación eventual, utilizando listas baremadas que se han normalizado en los últimos ejercicios con pruebas oficiales. Cabe considerar que la última actualización de la misma se ha realizado con el desarrollo de la convocatoria pública de empleo de Eusko Irratia. • Las inversiones se han centrado principalmente en renovaciones de equipamiento de Explotación, básicamente por un criterio de sustitución por obsolescencia. Las inversiones más significativas han sido: <ul style="list-style-type: none"> • Reposición de la matriz de conmutación en los Estudios de Miramon. • Renovación de la plataforma de servidores de automatización, baja resolución y MAM. • Renovación climatización de las áreas técnicas en la cubierta de la Sede de Miramon. • Renovación del mezclador de audio del control 3 de Miramon. • Mejoras en los sistemas de extinción de incendios en Vitoria.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> • Ekipamendu informatikoa egokitzea. <p>1. Benetako inbertsioetan aurreikusitako jarduketan guztizkoa (milaka eurotan).</p> <p>Film luzeen, film laburren eta telebistarako filmen ikus-entzunezko proiektuetako koprodukzioetan parte hartzeari dagokionez (2015eko ekitaldian burututako inbertsioa), 2015eko ekitaldia emankorra izan da ETBk parte hartu duen euskal zinema-produkzioetarako. Nabarmenezkoa da ETBk produkzio hauetan parte hartu duela:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Amama", euskaraz ekoiztutako filma, Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatu baita. Irizar saria lortu du, bai eta Signis sariko aipamen berezia ere. • "Psiconautas", jaialdi berean estreinatutako animazio-film luzea. Greenpeace-k emandako Lurra saria eskuratu du, ingurumen- eta bake-balioak islatu dituelako. • "Un otoño sin Berlin" da Zinemira galan proiektatutako titulua, Lara Izaguirren opera prima. Irizar sariko aipamen berezia erdietsi du. • Halaber, "Jai Alai Blues", "Gure sorlekuaren bila" eta "Sagardoa bidegile" film dokumental luzeak 2015eko Zinemaldiko zenbait sailetan estreinatu dira. • "Gernika"-n, ia 7 milioi euroko aurrekontua zuen nazioarteko koprodukzio handinahian, Koldo Serrak zuzenduan, eta Helena Tabernaren "El contenido del silencio" film luzean parte hartu du ETBk. <p>Txosten hau idaztean, 2015eko euskal film batzuk nazioarteko jaialdiarako hautatzen ari dira. "Loreak", Goya sarietan lehiatu ostean, Oscarretarako Espainiako hautagai aukeratu dute, ingelesezkoa ez den film onenaren kategorian.</p> <p>Ekitaldia bukatzeko zenbait hilabete falta direnez, ez dago perspektiba nahikorik 2015eko zinema-produkzioa ebaluatu eta balioesteko, baina ez da alde batera utzi behar, 2014an erdietsitako arrakasten ostean, euskal zinemaren historiako bigarren urte onena irizteko aukera. 2015ean hogeitabat proiektu berri onetsiak izatea zenbatetsi da; haien produkzioa eta estreinaldiak azken hiruhilekoan eta 2016an ikusiko dira.</p>	<p>1.000</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Adecuación de equipamiento informático. <p>1. Total actuaciones previstas en inversiones reales (miles de euros).</p> <p>En relación a la participación (inversión ejecutada en el ejercicio 2015) en coproducciones en proyectos audiovisuales de largometrajes, cortometrajes y películas para televisión, el ejercicio de 2015 ha sido fructífero para las producciones cinematográficas vascas participadas por ETB. Destacar la participación de ETB en las siguientes producciones:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Amama", película producida en euskera, que ha competido en la Sección Oficial del Zinemaldi de Donostia. Logra el premio Irizar y mención especial del premio Signis. • "Psiconautas" largo de animación estrenado también en el marco del mismo Festival. Logra el premio Lurra concedido por Geenpeace por reflejar los valores del medio ambiente y la paz. • "Un otoño sin Berlin" es el título proyectado en la gala Zinemira, opera prima de Lara Izaguirre que logra la mención especial del premio Irizar. • Asimismo los largometrajes documentales: "Jai Alai Blues", "Gure sorlekuaren bila" y "Sagardoa bidegile" se han estrenado en distintas secciones del Zinemaldia 2015. • "Gernika" una ambiciosa coproducción internacional con un presupuesto de casi 7 millones de euros dirigida por Koldo Serra, el largometraje "El contenido del silencio" de Helena Taberna, son otros de los títulos en los que ha participado ETB. <p>A fecha de la redacción de la presente Memoria consta que varias películas vascas de 2015 están siendo seleccionadas para festivales internacionales. Señalar que "Loreak" tras competir por los premios Goya, ha sido elegida como candidata española a los Oscar, a la mejor película de habla no inglesa.</p> <p>A falta de varios meses para cierre de ejercicio no existe perspectiva suficiente para evaluar y valorar la producción cinematográfica de 2015, pero no hay que descartar que pueda ser considerado, tras los éxitos logrados en 2014, como segundo mejor año de la historia del cine vasco. A lo largo de 2015 se estima que se hayan aprobado unos veinte proyectos nuevos, cuya producción y estrenos se verán en el último trimestre y durante el 2016.</p>
<p>2. Koprodukzioetan eta emisio-eskubideen erosketan inbertitutako kopurua (milaka eurotan).</p>	<p>5.700</p>	<p>2. Cifra de inversión en coproducciones y compra de derechos de emisión (miles de euros).</p>

3. 2016. URTERAKO HELBURU OROKORRAK ETA
HAIEN KUANTIFIKAZIOA.3. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2016 Y
SU CUANTIFICACIÓN.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. ERRENTAGARRITASUN SOZIALARI BURUZKO HELBURUAREN ETA KUDEAKETAKO ERAGINKORTASUNARI BURUZKO HELBURUAREN ARTEKO OREKA</p> <ul style="list-style-type: none"> EiTB Taldearen 2016rako aurrekontu bateratuak hazkunde txikia aurreikusten du 2015eko aurrekontuarekin erkatuta. Horrek esan nahi du joera-aldaketako bigarren urtea dela, 2009tik 2014ra aurrekontu-murrizketetarako joera ezarri ostean (2012an eta 2013an bereziki gogorrak izan ziren). <p>Azken hiru ekitaldietan sakonera handiko doikuntza-politikak egin dira. 2014ko eta 2015eko aurrekontuan, Zuzendaritza Nagusiari beharrezkoa iruditu zaio Edukiak kapituluaren aurrekontu-murrizketak geldiaraztea eta, ahal den neurrian, beste kapitulu batzuetan murriztu ahal izan diren partidak erabiltzea zeregin horretarako. Irizpide horri eutsiko zaio 2016an.</p> <p>Beraz, aurrekontu-hazkundeak ez du esan nahi gastu-gaitasuna oro har handituko denik.</p> <p>2014tik, komunikazio-taldeak oso programa- eta eduki-apustu garrantzitsuak egiten ari dira, bereziki ordutegi nagusian eta eguneko ordutegian, baliabide ekonomiko nabarmenak eta gero eta aurrekontu-zuzkidura handiagoak eskatzen dituzten formatuekin. Formatu handietan inbertitzeko joera hori izugarri goratu da 2015ean, eta ez da inolako joera-aldaketarik aurreikusten 2016rako.</p> <ul style="list-style-type: none"> EiTB Taldeko ekitaldi ekonomikoak zorrotza izan beharko du, aurrekoek bezala, eta zailtasunei aurre egin beharko die aurrekontu-oreka audientziaren mantentzearekin eta programazioaren kalitatearekin bateratzeko. Eduki-eskaintzaren funtsezko ikuspegitik, 2016ko aurrekontuak zenbait erronkari aurre egin behar dio: <ul style="list-style-type: none"> Informazio- eta gaurkotasan-edukiak, albistegietan lidergoari eusteko eta euskal gizarteari berezko albiste-kontakizuna emateko. 		<p>1. EQUILIBRIO ENTRE EL OBJETIVO DE RENTABILIDAD SOCIAL Y EL DE EFICIENCIA EN LA GESTIÓN</p> <ul style="list-style-type: none"> El presupuesto consolidado del Grupo EITB contempla para 2016 un crecimiento leve sobre el presupuesto de 2015; significa el segundo año de cambio de tendencia después de que desde 2009 a 2014 se estableciera una tendencia de reducciones presupuestarias, particularmente fuertes en 2012 y 2013. <p>A lo largo de los tres últimos ejercicios se han realizado políticas de ajuste de gran calado. En el presupuesto de 2014 y 2015 la Dirección General ha considerado necesario detener las reducciones presupuestarias en el capítulo de Contenidos y, en lo posible, destinar a ese cometido las partidas que se han podido reducir en otros capítulos, criterio que se mantendrá en 2016.</p> <p>Por tanto, un crecimiento presupuestario no significa una ampliación de capacidad de gasto con carácter general.</p> <p>Desde 2014 los grupos de comunicación están realizando apuestas de programas y contenidos muy importantes, particularmente en prime time y day time, con formatos que requieren importantes recursos económicos y dotaciones presupuestarias crecientes. Esa tendencia inversora en grandes formatos se ha disparado en 2015 y no se prevé ningún cambio de tendencia para 2016.</p> <ul style="list-style-type: none"> El ejercicio económico del Grupo EITB deberá ser austero como los anteriores y tendrá que sortear dificultades para conciliar el equilibrio presupuestario con el mantenimiento de la audiencia y la calidad de la programación. Desde la perspectiva esencial de la oferta de contenidos el presupuesto de 2016 deberá abordar los siguientes retos: <ul style="list-style-type: none"> Contenidos de información y actualidad para preservar el liderazgo en los informativos y aportar a la sociedad vasca un relato informativo propio.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
7591	Bestelako hainbat zerbitzuren sarrerak <i>Otros ingresos por servicios diversos</i>		155.000	
1	Beste zerbitzuak. <i>Servicios diversos.</i>	155.000		
778	Ez-ohiko sarrerak <i>Ingresos excepcionales</i>		200.000	
1	Ustiapeneko aparteko diru-sarrerak. <i>Ingresos extraordinarios de explotación.</i>	200.000		
IV. USTIAPENENKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE EXPLOTACIÓN				53.314.480
740	Ustiapenerako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak <i>Subvenciones, donaciones y legados a la explotación</i>		53.314.480	
7400	Ustiapenerako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak. EAEko sektore publikoa <i>Subvenciones, donaciones y legados a la explotación. Sector Público de la CAE</i>		41.420.000	
1	Ustiapen gastuak finantzatzeko EAEtik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailetik, jasoko direnak. <i>A recibir de la CAE, Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial, para financiar gastos de explotación.</i>	41.420.000		
7402	Ustiapenerako bestelako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak <i>Otras subvenciones, donaciones y legados a la explotación</i>		11.894.480	
1	Bizkaibusi, Udalbusi eta Lurraldebusi egindako ekarpenak, zerbitzuak direla eta. <i>Aportaciones por los servicios a Bizkaibus, Udalbus y Lurraldebuses.</i>	11.774.480		
2	Prestakuntzako diru-laguntzak. <i>Subvenciones de formación.</i>	120.000		
V. SARRERA FINANTZARIOAK INGRESOS FINANCIEROS				1.000
2.	BALORE NEGOZIAGARRI ETA BESTELAKO FINANTZA-TRESNENAK <i>DE VALORES NEGOCIABLES Y OTROS INSTRUMENTOS FINANCIEROS</i>			1.000
762	Hartzekoen sarrerak <i>Ingresos de créditos</i>		1.000	
7627	Epe laburreko hartzekoen sarrerak, bestelako enpresak <i>Ingresos de créditos a corto plazo, otras empresas</i>		1.000	
DIRU-SARRERAK GUZTIRA TOTAL INGRESOS				79.690.480



1. ENTITATEAREN JARDUERA OROKORRAK

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32. artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari trenbidearen gaineko zein trenbidezko garraioaren gaineko eskumen eskusiboa ematen dio.

Horren babesean eta maiatzaren 24ko Eusko Jaurlaritzako 105/82 Dekretuaren bidez, Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, S.A. Sozietate Publikoa sortzea erabaki zen, abuztuaren 25eko 2488/78 Errege Dekretua eta ekainaren 19ko 1446/81 Dekretuaren bidez egindako transferentzien kudeaketa egiteko baita etorkizunean eskatuko zaizkionak ere.

Maiatzaren 21eko Eusko Lege biltzarraren 6/2004 Legeak Zuzenbide Pribatuko Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoa sortu zuen, eta haren xedea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko eskumen diren eta bere esku uzten diren trenbide garraioko azpiegituren kontserbazioa, kudeaketa eta administrazioa da.

Horrekin loturik, ekainaren 6ko Eusko Jaurlaritzaren 118/2006 Dekretuak Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A. Sozietate Publikoaren kapital murrizketa baimentzen du, eta akziodun bakarra den Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazioari ekarpenak itzultzen dizkio, 221.012.899,68 euro, hain zuzen ere, "Trenbide azpiegituraren ustiapena" negozio unitateari zegozkion ondasunen eta eskubideen multzoari dagozkionak, eta, trenbide jabari publikoko gainerako ondasunekin batera, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarearen esku uzten dira, adskripzio gisa, eta hari agintzen zaio bere administrazioa eta kudeaketa.

Estatutu Sozialen 3. atalak, martxoaren 21eko 67/2006 Eusko Jaurlaritzako azken Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritik, ondorengoa xedatu du:

«3. artikulua.– Helburua.

1.– «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.» Sozietatearen helburu nagusia trenbidez garraioak egiteko zerbitzuak ematea da, bidaiariei zein salgaiei dagokienez; eta horren barruan izango dira: gurpildun materiala mantentzea, eta trenbideko garraioari loturik diren edo haren osagarriak diren jarduerak eta zerbitzuak.

1. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

El artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco confiere a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva, entre otras, en materia de ferrocarriles y de transporte por este medio.

A su amparo y mediante Decreto del Gobierno Vasco 105/82, de 24 de mayo, se acordó la creación de la sociedad pública Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A., con objeto de gestionar las transferencias realizadas a través del Real Decreto 2488/78, de 25 de agosto, y Decreto 1446/81, de 19 de junio, así como otras que pudieran encomendársele en el futuro.

La Ley 6/2004, de 21 de mayo, del Parlamento Vasco creó el Ente Público de Derecho Privado Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea, siendo su objeto la construcción, conservación y administración de las infraestructuras ferroviarias actuales o que en el futuro sean competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco y que se le encomienden.

En este sentido, el Decreto del Gobierno Vasco 118/2006, de 6 de junio, autoriza la reducción de capital de la sociedad pública Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A. con devolución de aportaciones a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como accionista único, en la suma de 221.012.899,68 euros, correspondientes al conjunto de bienes y derechos que configuraban la unidad de negocio de "Explotación de la infraestructura ferroviaria", para ser asignados, junto al resto de bienes de dominio público ferroviario, a Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea en régimen de adscripción, con la encomienda de su administración y gestión.

Establece el artículo 3 de los Estatutos Sociales, conforme a la última redacción dada por el Decreto del Gobierno Vasco 67/2006, de 21 de marzo:

«Artículo 3.– Objeto.

1.– Constituye el objeto principal de la sociedad «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.» la prestación de servicios de transporte ferroviario, tanto de personas viajeras como de mercancías, incluyendo el mantenimiento del material rodante, y de otros servicios o actividades complementarias o vinculadas al transporte ferroviario.

Araudiren batek edo xedapen juridikoren batek hala esleitzen badio, sozietateak bere gain hartuko du ondoko trenbide-lineen ustiapena: abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuaz eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaz Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutakoak.

Halaber, Interes Orokorreko Trenbide Sarearen barruko lineetan, trenbidez egindako garraio-zerbitzu guztiak eman ahal izango ditu.

2.– Halaber, jarduera nagusiaren osagarri gisa honako hau ere bada «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.» Sozietatearen helburua:

a) Bidaiariei zein salgaiei dagokienez, errepide, funikular, tranbia edo kablez garraio-zerbitzuak ematea, eta horren barruan izango dira: gurpildun materiala mantentzea, eta aipatu garraioari loturik diren edo haren osagarriak diren jarduerak eta zerbitzuak.

b) Aurreko idatz-zatietan aipatutakoez besteko baliabideen bitartez, bidaiariei zein salgaiei dagokienez, garraio-zerbitzuak ematea, barne direla aipatu zerbitzuak emateari loturik diren edo haien osagarriak diren zerbitzuak eta jarduerak.

c) Eraikuntzari, kontserbazioari eta ekipamenduari eta teknologia eta bere baliabideei dagokienez aholkuak ematea eta azterlanak egitea, trenbide-azpiegituren ordenazioa eta ustiapena, eta bai, bidaiariei zein salgaiei dagokienez, garraio-zerbitzua ematearen gaineko zuzendaritza, ikuskapena eta kontrol teknikoa burutzea ere.

d) Beste pertsona juridiko batzuk eratuaz edo horietan parte hartuaz nahiz dekretuz esleitzen zaion garraioarekin erlazionaturiko titularitate publikoko museoak kudeatzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, beste administrazio batzuk edo beste pertsona fisiko edo juridiko batzuk (bakoitza bere ahalmenez baliatuaz) esleitutako ataza hauek egitea: Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen barrukoak izanik goragoko idatz-zatietako helburuari lotuak direnak.

3.– Osagarri gisa goragoko 2. paragrafoan jasotako jarduerak eta 1. paragrafoan aurreikusitako jarduera printzipala burutu ditzake Sozietateak, zuzenean, edo zuzenbidez onartutako beste edozein eratan, hala nola helburu berdina edo antzekoa duten entitateetan bazkide gisa parte hartuaz.

4.– Sozietatearen helburuaren barruko jardueretariko bat burutzeko, legezko xedapenek honakoren bat eskatuko balute: titulu profesional bat, administrazio-baimen bat edo erregistro publikoetan inskribatzea, delako titularitate profesionala duen pertsonaren bidez egin beharko dira aipatu jarduerak, eta, beharrezkoa bada, burutzen hasi baino lehen, eskatutako administrazio-betekizun guztiak konplitu beharko dira.»

En especial, la sociedad podrá desarrollar, en la medida en que le sea encomendado por cualquier disposición jurídica o normativa, la explotación de las líneas ferroviarias transferidas a la Comunidad Autónoma de Euskadi por Decreto 2488/1978, de 25 de agosto y por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre.

Asimismo, podrá prestar todo tipo de servicios de transporte ferroviario sobre las líneas que se encuentren integradas en la Red Ferroviaria de Interés General.

2.– De igual manera, con carácter complementario de su actividad principal, es también objeto de la Sociedad «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.»:

a) La prestación de servicios de transporte por cable, tranvía, funicular o carretera, tanto de personas viajeras como de mercancías, que incluirá el mantenimiento del material rodante, y de otros servicios o actividades complementarias o vinculadas a dicho transporte.

b) La prestación de servicios de transporte, tanto de personas viajeras como de mercancías, mediante medios distintos a los mencionados en los apartados anteriores, incluyendo asimismo otros servicios o actividades complementarios o vinculados a la prestación de dichos servicios.

c) La realización de estudios y asesoramiento referentes, entre otros ámbitos, a la construcción, conservación y equipamiento, tecnología y sus medios, explotación y ordenación de infraestructuras ferroviarias, así como la dirección, inspección y control técnico de la prestación del servicio de transporte, tanto de personas viajeras como de mercancías.

d) La gestión de los museos de titularidad pública relacionados con el transporte que se le atribuya por Decreto o mediante la constitución o participación en otras personas jurídicas.

e) El desempeño de aquellas otras tareas relacionadas con el objeto de los apartados anteriores que le fueren encomendadas dentro del ámbito de competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi o por otras Administraciones o personas físicas o jurídicas, cada una en uso de sus facultades.

3.– La actividad principal prevista en el apartado 1 y las demás actividades recogidas en el apartado 2 anterior como complementarias, podrán ser desarrolladas por la sociedad bien de forma directa, o bien en cualesquiera otras formas admitidas en Derecho, como la participación en calidad de socio en otras entidades de objeto idéntico o análogo.

4.– Si las disposiciones legales exigiesen para el ejercicio de algunas de las actividades comprendidas en el objeto social algún título profesional, o autorización administrativa, o inscripción en Registros Públicos, dichas actividades deberán realizarse por medio de persona que ostente dicha titularidad profesional y, en su caso, no podrán iniciarse antes de que se hayan cumplido los requisitos administrativos exigidos.»

1986ko uztaillaren 1ekoa den gorago aipatutako artikulua lehen atalean ezarritakoari jarraituz, Eusko Jaurlaritzako zein Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos Erakundeko ordezkariak sinaturiko Aktaren bitartez, Urolako Burdinbidearen ondasun, eskubide, betekizun eta langile oro Eusko Trenbideak Erakundeari ematen zaizkio. Ondorioz, zerbitzua, ondasunak, eskubideak eta betekizunak Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.ren barne geratzen dira.

Ekainaren 21eko 214/94 Dekretuaren bitartez, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.ri La Reineta Escontrilla arteko Funikularren ustiapena eman zitzaion.

Abenduaren 15eko 380/98 Dekretuaren bitartez, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.ri Bilboko Tranbia, San Mamés - Atxuri tarte, A Linea, garraio zerbitzuaren ustiapena eman zitzaion.

Azkenik, eta ekainaren 27ko 139/2006 Dekretuaren bitartez, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A.ren esku uzten da Gasteizko Tranbiaren ustiapena.

Hona hemen Txostena idazterakoan ustiatzen diren Lineak:

Al amparo de lo dispuesto en el punto primero de dicho artículo, con fecha 1 de julio de 1986 mediante Acta suscrita por representantes del Gobierno Vasco y de Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos se hace entrega de la totalidad de bienes, derechos, obligaciones y personal del ferrocarril del Urola a Eusko Trenbideak, integrando el servicio, bienes, derechos y obligaciones en Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A., sociedad unipersonal.

Por Decreto 214/94, de 21 de junio, se atribuyó a Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A. la explotación del Funicular de La Reineta a La Escontrilla.

Por Decreto 380/98, de 15 de diciembre, se atribuyó a Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A., sociedad unipersonal, la explotación del servicio de transporte del Tranvía de Bilbao, tramo San Mamés - Atxuri, línea A.

Por último y mediante Decreto 139/2006, de 27 de junio, se atribuye a Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A. la explotación del tranvía de Vitoria-Gasteiz.

En concreto, las líneas en explotación en el momento de redactar esta memoria son las siguientes:

A) TRENBIDEA / FERROCARRIL
Txorierrri (Lutxana - Lezama)
Amorebieta - Bermeo
Bilbao - Donostia
Lasarte - Hendaia

B) ERREPIDEA BIZKAIA / CARRETERA BIZKAIA
A2315 Santurtzi - UPV/EHU
A2316 Sestao - UPV/EHU
A2326 Barakaldo - UPV/EHU
A2336 Muskiz - UPV/EHU
A3411 Bilbao - Getxo
A3414 Bilbao - Getxo por túneles de Artxanda
A3422 Areeta - Berango
A3451 Areeta - Armintza
A3471 Getxo - Cruces por Fadura

**B) ERREPIDEA BIZKAIA /
CARRETERA BIZKAIA**

A3472 Getxo - Cruces desde Las Arenas
Zamudio - Parque Tecnológico
Usansolo - Ospitalea/Hospital

**C) ERREPIDEA GIPUZKOA /
CARRETERA GIPUZKOA**

DB 01 Eibar - Elgeta
DB02 Ermua - Donostia AP-8
DB03 Lekeitio - Donostia AP-8
DB04 Mallabia - Ondarroa
DB44G Mallabia - Ondarroa nocturna
DB05 Ondarroa - Mutriku - Deba -Zumaia
DB06 Soraluze - Ondarroa
UK07 Aizarnazabal -Zumaia -Zestoa
UK08 Zarautz - Aia - Orio
UK 09 Zumaia - Donostia N-634
UK 49G Zumaia - Donostia N-634 nocturno
UK10 Zumaia - Zarautz – Donostia AP-8
UK11 Zumaia - Zarautz - Orio – Donostia AP-8
Udalbús Eibar
Eibar - Arrate

D) LARREINETAKO FUNIKULARRA**D) FUNICULAR DE LA REINETA****E) BILBOKO TRANBIA****E) TRANVIA DE BILBAO****F) VITORIA-GASTEIZ TRANBIA****F) TRANVIA DE VITORIA-GASTEIZ**

Kapital soziala, 72.394.670,04 eurotan ezarritako dagoena, horrela banatzen da:

El capital social, fijado en 72.394.670,04 euros, se distribuye de la siguiente forma:

PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN	%
EAEko Administrazioa Administración de la CAE	100
GUZTIRA TOTAL	100

2. 2015EAN BURUTUTAKO EGITE NAGUSIAK

2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2015

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2.1 INBERTSIOAK</p> <p>2015eko azken lauhilekoan, 2015 eta 2020 urteen artean, metroaren 3. linea berriaren zerbitzua eskaintzeko eta flotako tren zaharrenak ordezkatzeko helburuz helduko direla aurreikusten diren 950 serieko 28 tren berrien lehenengo unitatea jasotzea dago aurreikusita. Horrela, 2020an, konpainiako tren flota osoa berriztatuta egongo da.</p> <p>Egungo trenei dagokienez, hobekuntzak sartu dira serie guztien segurtasun softwarean.</p> <p>Urteko azken hiruhilekoan zehar, konpainiako trenen operazio aplikazio berrien proiektu pilotua martxan jartzea dago aurreikusita. Aplikazio horiek unitateen egoerari eta kokaguneari buruzko informazioa eta gertakarien aurreko erantzuna hobetzeko aukera emango dute.</p> <p>2015ean 7 autobus berri jaso dira. Horietatik 5 Gipuzkoako flotan sartu dira, eta 2 Bizkaikoan, guztiak ere dagozkion Foru Aldundiek Euskotreni esleipenean emandako zerbitzuen prestaziorako.</p> <p>Uztailean Bilboko tranbien P3 motako zaharberritze lanak (berrikuspen handia) hasi dira.</p> <p>Urte honetan amaituko da, baita ere, Gernikako trenbide kotxetegiak garbiketa tunel berriaren instalazioa, eta Ekuadorreko trenbide enpresa publikoari 3 lokomotora saltzeko prozesua gauzatuko da.</p> <p>2015ean hobekuntza garrantzitsuak egin dira suteen kontrako babes eta segurtasun sistemetan konpainiaren instalazioetan. Hobekuntza horiek 2016an jarraituko dute.</p> <p>Neurketa ekipoak instalatu dira instalazioetako kontsumoen monitorizazioa egin ahal izateko, baliabideen erabilera eraginkorragoa lortzeko helburuz.</p> <p>Ekitaldi honetan hasiera eman zaio merkantzien garraiorako segurtasun ziurtagiria lortzeko espedientearen izapidetzeari, eta baita trenbideko lizentzia eta bidaiarien garraiorako segurtasun ziurtagiria lortzeko izapidetzea ere.</p>		<p>2.1 INVERSIONES</p> <p>En el último cuatrimestre de 2015, está prevista la recepción de la primera unidad de los 28 nuevos trenes de la serie 950 que llegaran entre los años 2015 y 2020 con el fin de cubrir el servicio de la nueva Línea 3 de metro y sustituir los trenes más antiguos de la flota. De esta forma, en 2020, toda la flota de trenes de la compañía habrá sido renovada.</p> <p>En cuanto a los trenes actuales, se han realizado mejoras en el software de seguridad de todas las series.</p> <p>A lo largo del último trimestre del año, está prevista la puesta en marcha del proyecto piloto de las nuevas aplicaciones de operación de trenes de la compañía, que permitirán mejorar la información sobre el estado y posición de las unidades así como la respuesta ante incidencias.</p> <p>En 2015 se han recibido 7 nuevos autobuses de los cuales 5 se han incorporado a la flota de Gipuzkoa y 2 a la de Bizkaia, todos ellos para la prestación de servicios en las líneas concesionadas a Euskotren por las respectivas Diputaciones Forales.</p> <p>En el mes de julio se han iniciado los trabajos de remodelación de tipo P3 (gran revisión) de los tranvías de Bilbao.</p> <p>Este año también se finalizará la instalación del nuevo túnel de lavado en las cocheras ferroviarias de Gernika y se materializará la venta de 3 locomotoras a la empresa pública de ferrocarriles de Ecuador.</p> <p>En 2015 se han realizado también importantes mejoras en los sistemas de protección contra incendios y seguridad en las instalaciones de la compañía, y que continuarán en 2016.</p> <p>Se han instalado equipos de medida para poder realizar la monitorización de consumos en las instalaciones, con el fin de hacer un uso más eficiente de los recursos.</p> <p>En este ejercicio se ha iniciado la tramitación del expediente para la obtención del certificado de seguridad para el transporte de mercancías, así como la obtención también de la licencia ferroviaria y el certificado de seguridad para el transporte de viajeros.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Ekitaldi honetan lanean jarraitu da ukipenik gabeko BAT, BARIK eta MUGI txartelen hiru lurralde historikoetako interoperabilitaterako proiektu konplexuan. Proiektu hori Bilboko Tranbiako proiektu pilotuekin hasi zen, 2014ko uztailan, Larreinetako funikularrean, 2014ko azaroan eta Gasteizko Tranbian, urte bereko abenduan. 2015ean, tren zerbitzuetara zabaltzeko lanak egin dira, eta, horrela, 2016ko lehen lauhilekoan Mugi eta Barik txartelen interoperabilitatea martxan jarriko da Linea Orokorrean (Bilbao-Donostia-Hendaia eta Bermeora doan adarra). Hurrengo fasea BAT txartelak ere horrekin bat egitea izango da, 2016ko lehen seihilekoan.</p> <p>Interoperabilitaterako proiektuarekin eta ukipenik gabeko txartelekin erlazionatuta, baita ere, aurten hasi da enpresako ticketing informazioaren kudeaketaren sistema integratu berriaren garapenaren 2. fasea. Garapenak 2016an jarraituko du.</p> <p>2015. ekitaldian gidaritza simulagailuen goitik beherako berriztapenari (hardware eta software) ekin zaio, gidaritzako benetako eszenatokiak, gertakariei buruzko entrenamenduak eta gidaritza eraginkortasun modulu bat barne. Halaber, Durangoko eta Zumaiako simulagailuak Lebarioko eta Arasoko instalazio berrietara eraman dira.</p> <p>Beste alde batetik, Enplegatutako Pertsonaren Atariaren 1. fasea jarri da martxan. Tresna horrek on-line kudeaketa ugari egiteko aukera emango du, eta malgutasun, berehalakotasun, trazagarritasun eta eraginkortasun handiagorako aukera emango du enpresaren eta lantaldearen artean.</p> <p>2015eko azken lauhilekoan erabiltzaile postuen hardwarea berriztatu eta Windows 8.1.-era migratu egingo da.</p> <p>Kexei, ekintza ez zibikoei eta 112 zenbakira egin beharreko deiei buruzko funtzionaltasunak jasotzen dituen erabiltzaileentzako aplikazio mugikorra garatzen jarraitu da, eta urtea amaitu aurretik martxan jartzea aurreikusten da.</p> <p>Urriari kexak, erreklamazioak eta iradokizunak kudeatzeko aplikazio berria ere martxan jartzea aurreikusten da.</p> <p>2015ean trenen gidaritza egonkor proiektua garatzeko lanekin ere jarraitu da, eta urtea amaitu aurretik proba pilotuan gidaritzen azterketa egiteko faseari hasiera ematea aurreikusten da (topoaren linean), gidaritza eraginkorrean identifikatzeko eta trenera eramateko.</p> <p>2.2 USTIAPENA</p>		<p>En este ejercicio, se ha continuado trabajando en el complejo proyecto de interoperabilidad de las tres tarjetas sin contacto BAT, BARIK y MUGI en los tres territorios históricos. Este proyecto se inició con los proyectos piloto del Tranvía de Bilbao, en julio de 2014, funicular de la Reineta en Noviembre de 2014 y Tranvía de Vitoria-Gasteiz en Diciembre del mismo año. A lo largo de 2015 se ha estado trabajando en su extensión a los servicios ferroviarios, de forma que durante el primer cuatrimestre de 2016 se pondrá en marcha la interoperabilidad de las tarjetas Mugi y Barik en la Línea General (Bilbao-Donostia-Hendaia y el ramal a Bermeo), siendo la fase siguiente la incorporación de la tarjeta BAT para el primer semestre de 2016.</p> <p>En relación también con el proyecto de interoperabilidad y las tarjetas sin contacto, en este año se ha comenzado la fase 2 del desarrollo del nuevo sistema integrado de gestión de la información de ticketing de la empresa, y que continuará en 2016.</p> <p>Durante 2015 se ha procedido a la renovación integral (hardware y software) de los simuladores de conducción, incluyendo escenarios reales de conducción, entrenamiento en incidencias y un módulo de eficiencia en la conducción. Asimismo, se ha procedido al traslado de los simuladores de Durango y Zumaia a las nuevas instalaciones de Lebario y Araso.</p> <p>Por otra parte, se ha puesto en marcha la fase 1 del Portal de la Persona Empleada, herramienta que permitirá multitud de gestiones on-line y proporcionará una mayor flexibilidad, inmediatez, trazabilidad y eficiencia en las relaciones entre la empresa y su plantilla.</p> <p>En el último cuatrimestre de 2015 se habrá renovado el hardware de los puestos de usuario y migrado a Windows 8.1.</p> <p>Se ha seguido desarrollando la aplicación móvil para personas usuarias que incorpora las funcionalidades de quejas, actos incívicos y llamada 112, y se espera poder ponerla en marcha antes de fin de año.</p> <p>También está previsto arrancar la nueva aplicación de gestión de quejas, reclamaciones y sugerencias en el mes de octubre.</p> <p>En 2015 también se han continuado con los trabajos de desarrollo del proyecto de conducción eficiente en trenes, y se espera empezar antes de fin de año la fase de análisis de conducciones en la prueba piloto (línea del Topo) para identificar la conducción más eficiente y llevarla al tren.</p> <p>2.2 EXPLOTACIÓN</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Sozietatearen ohiko jarduerari dagokionez, egoera ekonomiko orokor zailarekin jarraitzen dugunez, helburu nagusietakoa ditugun baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzea da, gure erabiltzaileentzat balio erantsi argirik ekartzen ez duten eta emandako zerbitzuen kalitatea hobetzen ez duten gastu guztiak murriztuz.</p> <p>Uztailera arte metatutako datuetan, erabiltzaile kopuruak %2,3ko hazkundea izan du, eta zerbitzuen salmentengatik diru-sarrerek %3koa, aurreko urtearekin alderatuz.</p> <p>Estaldura maila ere %52,3ra arte igo da, aurreko ekitaldiko %51,1arekin alderatuz.</p> <p>Ustiapen mailako jarduketa azpimarragarrienen artean hauek agertzen dira:</p> <p>Metroaren 3. linea eraikitzeke lanen ondorioz, 2015eko ekainean beharrezkoa izan da mozketak egitea Txorierriko Linean, Bilboko Zazpi Kaleetako geltokirako sarbideari dagokionez.</p> <p>Jarduketa horrek erabiltzaileengan izan dituen eragozpenak murriztu ahal izateko, akordioa lortu da Bilboko Metroarekin eta Lutxanako geltokiko nasa gaitu da, Euskotreneko eta Metro Bilbaoko zerbitzuen arteko garraio aldaketa egin ahal izateko. Halaber, Sangroizeko geralekua zabaldu da berriro.</p> <p>Gainera, udako zerbitzua hasi denetik, ostiral gaueko zerbitzua ezarri da, larunbat gauean dagoeneko eskaintzen zenari gehituz, Metro Bilbaok ere eskaintzen duenaren antzekoa.</p> <p>Txorierriko linean izandako aldaketa horren eraginez, linea horretako treneko agenteen egoitza, berriztatu egin diren Lutxanako instalazioetara eramana da.</p> <p>Ekitaldi honetako beste berrikuntza bat, aurreko urteetako udan izandako erabiltzaileen datuak ikusita, Bilboko tranbiaren zerbitzua handitzea erabaki dela da, uda garaian, aurreko urteekin alderatuz. Horrela, ia egun osoan 15 minutuz behingo maiztasuna izatetik, 12 minutuz behingo maiztasuna izatera pasatuko da. Hau da, eskaintza, 2014. urtean baino %18 altuagoa izango da.</p> <p>Ekitaldi honetako beste alderdi azpimarragarri bat Burdinbidearen Euskal Museoaren jardura berriro ere Euskotrenen sartu dela da.</p>		<p>En cuanto a la actividad ordinaria de la Sociedad, dada la todavía difícil situación económica general, uno de los principales objetivos de la empresa sigue siendo la optimización en la utilización de los recursos disponibles, reduciendo todos aquellos gastos que no aportan un claro valor añadido para nuestras personas usuarias, y la mejora de la calidad de los servicios prestados.</p> <p>En los datos acumulados hasta julio, el n. de personas usuarias se ha incrementado un 2,3% y los ingresos por ventas de servicios un 3% respecto al año anterior.</p> <p>El índice de cobertura se ha elevado también hasta el 52,3% frente al 51,1% del ejercicio anterior.</p> <p>Entre las actuaciones más destacadas a nivel de explotación, figuran las siguientes:</p> <p>Con motivo del avance de las obras de construcción de la Línea 3 de metro, en el mes de junio de 2015 ha sido necesario realizar el corte de la Línea del Txorierri en su acceso a la estación del Casco Viejo de Bilbao.</p> <p>Para tratar de paliar los inconvenientes que esta actuación ha tenido en las personas usuarias, se ha alcanzado un acuerdo con Metro Bilbao y se ha habilitado el andén de la estación de Lutxana de forma que se puede realizar el trasbordo entre los servicios de Euskotren y Metro Bilbao. Asimismo, se ha reabierto el apeadero de Sangroniz.</p> <p>Además, desde el comienzo del servicio de verano se ha implementado el servicio nocturno de viernes, que viene a sumarse al ya ofrecido los sábados noche, similar al servicio que también realiza Metro Bilbao.</p> <p>Este cambio en la línea del Txorierri, ha llevado asociado la modificación de la residencia de los agentes de tren de esta línea que se ha trasladado a las reformadas instalaciones de Lutxana.</p> <p>Otra novedad de este ejercicio, es que en vista de los datos de personas usuarias en los veranos de años precedentes, se ha decidido incrementar el servicio del tranvía de Bilbao en la temporada de verano respecto a años anteriores, pasando de frecuencia de 15 minutos a frecuencia de 12 minutos casi todo el día lo que supone un incremento de la oferta del 18% respecto al año 2014.</p> <p>Otro aspecto destacable de este ejercicio es que la actividad del Museo Vasco del Ferrocarril se ha integrado nuevamente en Euskotren.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Aurrera jarraitu da 2013-2016 Hitzarmen Kolektiboan negoziatutako Merkataritza Arreta eredu berriaren ezarpenarekin. Horren bitartez, gure erabiltzaileei zerbitzu hobea emateko aukera eskainiko diguten hobekuntzak ezarri nahi dira. Horri dagokionez, 2015ean, ordutegi alternatiboetan arretarik ez zuten geltokietan arreta eskaintzen hasi da, Linea osoan merkataritza arreta handiagoa lortuz.</p> <p>2015ean kanpo aukeraketa prozesua garatu da, beharrezkoa enpresari Lineako Agenteen eta Geltokiko Agenteen lan poltsa emateko. Antolakuntzako irudi berri horiek beharrezkoak dira merkataritza arreta eredu berria ezartzeko eta eraikiko den 3. lineari zerbitzua emateko. Beste alde batetik, eraikiko den 3. linearako Tren Agenteen eta Eragiketa agenteen lan poltsa ere sortuko da.</p> <p>Alderdi sozialarekin adostutako 2015-2017 epealdirako adostu den Euskalduntze Plana ere onartu da, eta berau martxan jartzeko lanari ekin zaio. Horrez gain, Euskotreneko uniforme eta laneko arropa birdefinitzeari ekin zaio.</p> <p>2015eko martxoan Gipuzkoako errepideko emakida berriari jarri zen martxan, Ermua-Donostia eta Lekeitio-Donostia lineak sartuz. Horrek zerbitzuak berrantolatatu beharra eta Lebarion gidari-kobratzaile egoitza berria sortzea ekarri du, erregaia kargatzeko eta garbiketarako instalazioez hornituz.</p> <p>Horrez gain, erregistraturiko eskari garrantzitsua dela eta, irailetik aurrera zabaldu egin da Ermua eta Donostia arteko autobus linean eskaintzen den zerbitzuaren maiztasuna.</p> <p>2015eko uztailan txartel konbinatua (PASSEUSK) jarri da martxan Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak kudeatzen duen Baiona-Hendaia-Irun autobus emakidadunarekin. Horri esker titulu baliagarria eskuratu ahal izango da Baiona, Hendaia, Irun ibilbidea autobusez egiteko eta EuskoTreneko Hendaia-Donostia-Lasarte/Oria trenbide lineako geltokietara joateko.</p> <p>2015eko irailean Bortziri billete konbinatua jarri da martxan, Nafarroako Foru Erkidegoarekin garraio publikoa sustatzeko xedez. Titulua Euskotrenen eta Bortzirietako eskualdeko ibilbideak (Etxalar, Igantzi/Arantzeta, Bera Bidasoa eta Lesaka) egiten dituzten autobusetan erabili ahal izango da, Irunekin konbinatuz. Horrela, titulu baliagarria eskuratu ahal izango da aipatutako herrien artean, busez eta Euskotreneko Hendaia-Donostia-Lasarte/Oria trenbide lineako geltokien artean, Irungo geltokian konbinatuz.</p>		<p>Se ha continuado con la implantación del nuevo Modelo de Atención Comercial, negociado en el Convenio Colectivo 2013-2016, y con el que se pretende implantar mejoras que permitan dar un mejor servicio a nuestras personas usuarias. En este sentido, se ha comenzado, en 2015, con la atención en estaciones que no estaban atendidas en horarios alternativos, consiguiendo una mayor presencia de atención comercial en la Línea.</p> <p>En 2015 se ha desarrollado el proceso de selección externa necesario para dotar a la empresa de bolsas de trabajo de Agentes de Línea y Agentes de Estación, nuevas figuras organizativas necesarias para la implantación del nuevo modelo de atención comercial y de la futura Línea 3, y por otro lado de Agentes de Tren y Agentes de Operaciones, también para la futura Línea 3.</p> <p>También se ha aprobado el Plan de Euskaldunización acordado con la parte social para el periodo 2015-2017, y se ha comenzado la puesta en marcha del mismo, y se ha procedido a la redefinición del uniforme y la ropa de trabajo de Euskotren.</p> <p>La puesta en marcha en marzo de 2015 de la nueva concesión de carretera en Gipuzkoa, con la inclusión de las líneas Ermua-Donostia y Lekeitio-Donostia, ha supuesto la reorganización de los servicios y la creación de una nueva residencia de conductores cobradores en Lebario, dotándola de instalaciones de repostaje y lavado.</p> <p>Además, debido a la importante demanda registrada, a partir de septiembre, se ha incrementado la frecuencia del servicio ofertado en la línea de autobuses entre Ermua y Donostia.</p> <p>En Julio de 2015 se ha puesto en marcha un billete combinado (PASSEUSK) con la concesionaria de autobuses Baiona-Hendaia-Irun, línea gestionada por el Consejo General de Pirineos Atlánticos, lo que permite adquirir un título válido entre Baiona, Hendaia, Irun por autobús y estaciones de la línea Hendaia-Donostia-Lasarte/Oria de Euskotren.</p> <p>En septiembre de 2015 se ha puesto en marcha el billete combinado Bortziri, con el objeto de fomentar el transporte público, con la Comunidad Foral de Navarra. El título será válido en Euskotren y en los autobuses que cubren los trayectos de la comarca de Bortziri (Etxalar, Igantzi/Arantzeta, Bera de Bidasoa y Lesaka) en relación con Irún, lo que permite adquirir un título válido entre las citadas localidades por autobús y estaciones de la línea Hendaia-Donostia-Lasarte/Oria de Euskotren combinando en la estación de Irún.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2015ean zehar, Hendaia geltokiko seinaleztapenean eta informazioan zenbait hobekuntzari amaiera ematea aurreikusten da, Transfermuga programaren barruan.</p> <p>2015eko azken hiruhilekoan Amañako geltoki berria martxan jarriko dela aurreikusten da.</p> <p>Urte honetan, Bizi Euskotren komunikazio plana gauzatu joan da. Horren bitartez, garraio publikoa era zibikoan erabili beharraz kontzientziatu nahi da gizartea, ondasun publikoak eta pertsonak errespetatuz, enpresako langileak, batez ere.</p> <p>Ekitaldi honetan, EuskoTreneko Jarduera Zentroetako Garraio Planetatik sortutako ondorioak eta proposamenak aztertu dira (Mugikortasun Planak), identifikatutako ekintzak 2016tik aurrera ezartzen hasteko xedez.</p> <p>Europar Batasunak bultzatutako trenbide liberalizazio eszenatokia ikusita, eta kontuan izanik, gainera, denbora gutxi barru Euskal Trenbide Sare Berria jarriko dela martxan, Euskotrenek tren operadore gisa zerbitzu berriak eskaini ahal izateko aukera posibleak aztertzeke prozesua jarri du martxan. 2015ean hasitako prozesu horrek jarraipena izango du 2016an.</p> <p>Merkatu kuota</p> <p>1. Garraiatutako bidaiari kopurua.</p> <p>Finantza eraginkortasuna.</p> <p>2015ean eraginkortasuneko adierazle gehienak lortzea aurreikusten da.</p> <p>Bikaintasun operatiboa.</p> <p>2015ean ezarritako adierazle gehienak lortzea aurreikusten da.</p> <p>Iraunkortasuna.</p> <p>2015ean ezarritako adierazle gehienak lortzea aurreikusten da.</p>	<p>99%</p>	<p>Durante el año 2015, se tiene previsto culminar un conjunto de mejoras en señalítica e información en la estación de Hendaia, dentro del programa Transfermuga.</p> <p>En el último trimestre de 2015 está prevista la puesta en servicio de la nueva estación de Amaña.</p> <p>Durante este año, se ha estado desarrollando el plan de comunicación Bizi Euskotren el cual pretende concienciar a la sociedad del uso del transporte público de una manera cívica, con respeto a los bienes públicos y a las personas, especialmente a las trabajadoras y trabajadores de la empresa.</p> <p>Durante este ejercicio, se han analizado las conclusiones y propuestas surgidas de los Planes de Transporte de los Centros de Actividad de Euskotren (Planes de movilidad) de cara a comenzar la implementación de las acciones identificadas a partir de 2016.</p> <p>Ante el escenario de liberalización ferroviaria preconizado por la Unión Europea y teniendo en cuenta además la futura puesta en servicio de la Nueva Red Ferroviaria Vasca, Euskotren ha puesto en marcha un proceso de análisis de posibles opciones para la prestación de nuevos servicios como operador ferroviario. Este proceso, iniciado en 2015, se proseguirá en 2016.</p> <p>Cuota de mercado</p> <p>1. N. de viajeras y viajeros transportados.</p> <p>Eficiencia Financiera.</p> <p>En 2015 se espera alcanzar la mayor parte de los indicadores de eficiencia.</p> <p>Excelencia Operativa.</p> <p>En 2015 se espera alcanzar la mayor parte de los indicadores establecidos.</p> <p>Sostenibilidad.</p> <p>En 2015 se espera alcanzar la mayor parte de los indicadores establecidos.</p>

3. 2016RAKO HELBURU OROKORRAK ETA BERAUEN ZENBATEKOA

3. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2016 Y SU CUANTIFICACIÓN

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>3.1 INBERTSIOAK</p> <p>2016an 950 serieko beste 5 tren jasoko dira, beharrezkoak metroaren 3. linearen zerbitzurako, eta beste bi unitateren fabrikazioa kontratatuko da Donostialdeko Metroak etorkizunean eskainiko duen zerbitzurako.</p> <p>Trenen errodatzearen kontrolerako ekipamendu berriak instalatzea dago aurreikusita, segurtasuna hobetzeko xedez.</p> <p>Konpainiako tren operazio aplikazio berrien proiektu pilotuaren nondik norakoa zabalduz joatea ere aurreikusten da. Unitateen egoerari eta posizioari eta eraginaren aurreko erantzunari buruzko informazioa hobetzeko aukera emango dute.</p> <p>Trenbide mantentze lanetako tailerrei dagokienez, oraindik jaso gabe dauden ekipamenduak jasotzeari amaiera emango zaio, eta urte hasieran martxan egongo dira dagoeneko Arasoko instalazio berri eta modernoak. Bertara joango da, baita ere, gaur egungo Amarako Tren Agenteen egoitza.</p> <p>Aurten aurrera jarraituko da Bilboko tranbiako material mugikorraren P3 motako zaharberritze lanekin, udako hilabeteetan.</p> <p>2016. urtean tranbia unitate berriak eskuratzeko irizpideak eta egutegia ezarriko dira, Sozietateak ustiatutako lineen hedapen planen arabera.</p> <p>2016an autobus flota berrizatzeko plan berria kontratatuko da. Plan horren barruan 11 ibilgailu berri eskuratuko dira 2016an, 7 Bizkaiko zerbitzuetarako eta 4 Gipuzkoakoetarako, eta beste 5 2017rako.</p> <p>2016an aurrera jarraituko da interoperabilitaterako proiektuarekin, BAT txartelaren erabilera ezarriko linea orokorrean, eta baita zerbitzu berrietara zabaltzen joateko helburuarekin ere, metroaren 3. Linea, besteak beste.</p> <p>Ekitaldi honetan merkantzien garraiorako segurtasun ziurtagiria lortzeko espedientearen izapidetzea lortu nahi da, eta baita trenbideko lizentzia zabaltzeko eta horren ondoriozko bidaiarien garraiorako segurtasun ziurtagiria lortzeko izapidetzea ere, interes orokorreko trenbide sarean</p> <p>Interoperabilitatearekin erlazionatuta, baita ere, Metro Bilbaorekin eta BGParekin batera, operadore bakoitzak dituen beharren azterketan egingo da lan, titulu magnetikoen pixkanakako kentze definitua lortzeko eta horien ordez TSC ultralight teknologia ezartzeko.</p>		<p>3.1 INVERSIONES</p> <p>A lo largo de 2016 se recibirán otros 5 trenes más de la nueva serie 950, necesarios para el servicio de la línea 3 de metro, y se contratará la fabricación de 2 nuevas unidades adicionales para el servicio futuro del Metro de Donostialdea.</p> <p>Está prevista la instalación de nuevos equipamientos para el control de rodadura de los trenes de cara a mejorar la seguridad.</p> <p>Se prevé asimismo ir ampliando el alcance del proyecto piloto de las nuevas aplicaciones de operación de trenes de la compañía, que permitirán mejorar la información sobre el estado y posición de las unidades así como la respuesta ante incidencias.</p> <p>En cuanto a los talleres de mantenimiento de ferrocarril, se finalizará la recepción de los equipamientos pendientes y a principios de año ya estarán en funcionamiento las nuevas y modernas instalaciones de Araso, donde también se trasladará la plantilla de la actual residencia de Agentes de Tren de Amara.</p> <p>Este año se continuará con los trabajos de remodelación de tipo P3, en el material móvil del tranvía de Bilbao, durante los meses de verano.</p> <p>Durante el año 2016 se establecerán los criterios y el calendario de adquisición de nuevas unidades de tranvía en función de los planes de ampliación de las líneas explotadas por la Sociedad.</p> <p>En 2016 se contratará el nuevo plan de renovación de la flota de autobuses que contempla la adquisición de 11 nuevos vehículos en 2016, 7 de ellos para los servicios de Bizkaia y 4 para los de Gipuzkoa, y otros 5 para 2017.</p> <p>En 2016 se continuará trabajando en el proyecto de interoperabilidad con la implantación del uso de la tarjeta BAT en la línea general, así como con la finalidad de seguir extendiéndolo a nuevos servicios como la Línea 3 de metro.</p> <p>En este ejercicio se espera obtener el certificado de seguridad para el transporte de mercancías, así como ampliar la licencia ferroviaria y el consiguiente certificado de seguridad para el transporte de viajeros en la red ferroviaria de interés general.</p> <p>En relación también con la interoperabilidad, se trabajará, junto con Metro Bilbao y el CTB, en el estudio de las necesidades que cada operador debe realizar para lograr una retirada definida y paulatina de los títulos magnéticos por tecnología TSC ultralight.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>Gainera, Metro Bilbaorekin koordinazioan lanean jarraituko da tituluen eta tarifen bateratzea lortzeko, eta baita garraio aldaketa azkarra eta argia bi operadoreen artean, etorkizunean lortu beharreko txartelen arteko interoperabilitatea ahaztu gabe.</p> <p>Inbertsio garrantzitsua egingo da metroaren 3. linearako salmenta makina berriak erosteko, eta baita zaharkituta geratu den makinaren parkea berritzatzeko ere. Aurreikuspenen arabera, ordainketa pasarela bat instalatuko da (hardwarea eta softwarea) salmenta eta kargatze makinetan kreditu/debitu txartelarekin ordaintzeko.</p> <p>2016an Enplegatutako Pertsonaren Atariaren aplikazio berriak (1. fasea) jarriko da martxan, eta baita iaz hasitako enpresako ticketing informazioaren kudeaketaren sistema integratua ere.</p> <p>Horrez gain, 2016an, Enplegatutako Pertsonaren Atariaren II. Fasearen garapena aztertuko da, falta diren funtzionaltasunak definituz.</p> <p>Halaber, urte honetan beharrezkoak diren zenbait zaharberitze lan egingo da zaharkituta geratu diren instalazioetan, segurtasun instalazioen hobekuntza lanak amaituko dira eta egoitzen loturako komunikazioak hobetuko dira.</p> <p>3.2 USTIAPENA</p> <p>2016. ekitaldia, printzipioz, aurrekoaren antzera agertzen da, gastuari eusteko esfortzu garrantzitsuarekin jarraitzeko beharri eta, aldi berean, erabiltzaileen eskaintzen zaien zerbitzua hobetzeko ekintzak aurrera eramateari dagokionez.</p> <p>Aurrekoa horrela izanik ere, garrantzitsua da azpimarratzea 2016. urtea oso urte konplikatu izango dela, trantsiziozkoa, izan ere ustiapen kostuen hazkunde garrantzitsuari egin beharko zaio aurre, metroko 3 linea berriaren zerbitzua emango duten langileak behar adina aurrerapenez kontratatzeke eta prestatzeko.</p> <p>Horrela, urte osoan zehar L3ko langileak prestatzeko beharrezkoak diren prozesuei ekingo zaie: Treneko Agentea, Eragiketako Agentea, Lineako Agentea eta Geltokiko Agentea, horrela, langile horiek zerbitzua martxan jartzen denerako erabat prestatuta eta lan egiteko moduan egon daitezten.</p> <p>Horrez gain, L3a martxan jartzearekin erlazionatuta, baita ere, ustiapen berriaren baldintzen negoziatioari ekingo zaio: egoitzak, betebeharrak, zerbitzu laukiak, etab.</p>		<p>Además se seguirá trabajando en coordinación con Metro Bilbao para lograr una unificación de títulos y tarifas así como un transbordo rápido y claro entre ambos operadores, sin olvidar una futura interoperabilidad de las tarjetas.</p> <p>Se realizará una importante inversión en la compra de las nuevas máquinas de expendición para la línea 3 de metro así como la renovación de parte del parque de máquinas obsoleto. Está prevista también la instalación de una pasarela de pago (hardware y software) para el pago con tarjeta de crédito/débito en las máquinas de venta y recarga.</p> <p>En 2016 se pondrán en funcionamiento las nuevas aplicaciones del Portal de la Persona Empleada (fase I) y el sistema integrado de gestión de la información de ticketing, cuyos desarrollos se iniciaron el año anterior.</p> <p>Además, durante 2016 se analizará el desarrollo de la fase II del Portal de la Persona Empleada, con la definición de las funcionalidades pendientes.</p> <p>Así mismo, durante este año se realizarán algunas reformas necesarias en instalaciones obsoletas, se finalizarán las obras de mejora de las instalaciones de seguridad y se mejorarán las comunicaciones de interconexión de sedes.</p> <p>3.2 EXPLOTACIÓN</p> <p>El ejercicio 2016, se presenta a priori similar a los ejercicios anteriores en cuanto a la necesidad de continuar con el importante esfuerzo de contención del gasto y al mismo tiempo desarrollar acciones de mejora del servicio a las personas usuarias.</p> <p>No obstante lo anterior, es importante destacar que el año 2016, será un año realmente complicado y de transición, ya que deberá soportar un importante incremento de los costes de explotación para poder contratar y formar con la suficiente antelación, al personal que dará servicio a la nueva línea 3 de metro.</p> <p>En este sentido, a lo largo de todo el año, se acometerán los procesos formativos necesarios del personal de la L3: Agente de Tren, Agente de Operaciones, Agente de Línea y Agente de Estación, de modo que dicho personal esté completamente formado y operativo antes del arranque del servicio.</p> <p>Asimismo, también en relación con la puesta en marcha de L3, se abordará la negociación de las condiciones de la nueva explotación: residencias, funciones, cuadros de servicio, etc.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
